

## “Ibarretxeren alde egin izana pagatzen ari naiz”

Miguel Madariaga | Saltzailea

Protoureko talde zaharrenaren arima.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona



### Hemen Mungiako taxista ohia!

Eta aurretik marinela! Pertsona bakoitzak, mundura jaiotzean, bide bat dauka markatuta. Zelan helduko nintzen ni bestela heldu naizen lekura?

### Markatutako bide bat? Ia-ia kartzelara sartu zintuzten eta!

Atarian egon nintzen. Txakur txikirik ez zegoela ikustean zenbaitek proiektua umezurtz utzi zuten, eta hor irauin nuen nik, naufragoak bezala, salbatzera norbait etorri arte flotatzea beste helburu barik.

### “Saltzen, saltzen, txakur txiki baten karameluak...”

Ez nago eta ez nengoen etengabe proiektua saltzera derrigortuta, baina barruan daramat. *Multimillonario* izan nahi baduzu alferrik zabiltza, baina badakizu zer poztasun den Pirinioetara heldu eta gure zaleak bide erdian ahuspez ikustea?

### Emozioaren emozioz, malkoak aterako zaizkit...

Nire lanpostutik erretiratuta nago eta egiten dudana soldata barik egiten dut. Proiektu hau nire umea da eta osasuna daukadan artean ez dut inoren esku lagako.

### Noren esku dago txirrindularitza dopinarekin ez lotzea?

Oso ahulak gara, eta elkar zapaltzen gabiltza, nor itoko. Zergatik ez dituzte beste kiroletan gurean beste kontrol pasazten? Beste kiroletan zer dagoen salatzen denean salbatuko da txirrindularitza.

### Kontxo, kontxo...

Une honetan ez daukagu sinesgarritasunik eta ez gara batzeko kapaz. Gure lurra ondo abonatuta dago, baina beste batzuen interes eta negozio itzelek dena zapuzten dute. Batzuk ez dute txirrindularitza artezterik nahi.

### Badakizu, arrain handiak libre eta txikiei egurra!

Zergatik jartzen zaio positibo eman duenari urte biko zigorra eta ez sei hilabetekoa? Zigorra, zigorra, eta zigorra, eta bitartean ez gara konturatzen zenbat kirolari dauden droga arrunten munduan sartuta sats eginda amaitu dutenak.

### Gizarte honen ispilua da, konpai.

Gizarte bezala ere aspaldi gabiltza norabide barik. Norabide barik dabilenak ez ei dauka galtzeko arriskurik, baina galdu ezin duena, galduta dago.

### Zuk, 2009an, norabidea Ibarretxek markatuko zuela pentsatu zenuen baina...

Ibarretxeren alde egin izana pagatzen ari naiz, baina berriz egin beharko banu, berriz egingo nuke. Hori bai, nik Juan Jose Ibarretxe Markuarturi eman nion babes, ze politika niri ere...

### Saltzaileak isilik egoten jakin behar duela...

Niretzat ez dut ezer lortu behar, nire bizimodu konponduta daukat, eta gauzak argi izanez gero zergatik ez ditut esango? Hori bai, beti aurpegira eta albora begiratu barik. ■